ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 11, asteazkena • 130 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

376/2026 Foru Agindua, azaroaren 2koa. «Goiain industrialdeko San Bartolome eta Zabaldea kaleetako euri-uren kolektorea eraikitzeko proiektuaren» ingurumen inpaktuaren txostena egitea

Araba Garapen Agentzia SAk (AGA) sustatutako "Goiain industrialdeko (Araba) San Bartolome eta Zabaldea kaleetako euri-uren kolektorea eraikitzeko proiektua" ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduraren mende dago, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, 7.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu horrek I. eta II. eranskinetan jasota ez dauden eta Natura 2000 Sareko eremuetan zuzenean edo zeharka eragin nabarmena izan dezaketen proiektuak hartzen ditu barne.

Era berean, 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa, aplikatu behar da, bereziki II. E.3 eranskina, II. D eranskinean jasota ez dauden proiektuei buruzkoa, baldin eta, zuzenean edo zeharka, banaka edo beste plan, programa edo proiektu batzuekin batera, naturagune babestuei edo natura ondarea kontserbatzeko araudiaren arabera babes araubideren bati loturik dauden eremuei nabarmen eragin badiezaiekete.

Honako proiektu hau esandako prozedurari lotuta dago, hain zuzen ere, babestutako guneetan eta kontserbatu beharreko ingurumen balioetan izan dezakeen eraginagatik. Hori dela eta, dagokion ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua izapidetu behar da, baimena eman aurretik.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, proiektuaren sustatzailearen dokumentazioa jaso ondoren, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsultak egiteko faseari ekin zion, 21/2013 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsulta aldia amaituta, ingurumen inpaktuaren txosten hau egin du ingurumen jasangarritasunaren zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Zuzendaritzak eskatuta.

Ingurumen inpaktuaren txosten hau nahitaezkoa eta loteslea izango da, 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoak, 79.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen inpaktuaren txostena Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eman zuen 2026ko urriaren 7an (26/04 EIA espedientea).

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena.

1.1.1. Abiapuntuko egoera:

Gaur egun, Goiain industrialdeko Zabaldea eta San Bartolome kaleetan sortzen diren euri urak, bai eta industrialdeko ondoko lurzatietatik datozenak ere, lehendik dagoen drainatze sareak biltzen ditu, eta hondakin urekin batera araztegira eramaten dira sare bateratuaren bidez. Antolamendu horren ondorioz, jariatze uren emari handiak iristen dira hondakin uren araztegira (HUA), eta horrek araztegiaren eraginkortasun hidraulikoa eta arazketa eraginkortasuna murrizten ditu, bereziki euria egiten duenean.

Egoera hori zuzentzeko, proiektuak euri uren kolektore berri bat instalatzea aurreikusten du Zabaldea kale osoan eta San Bartolome kaleko 140 metro inguruko tarte batean. Ondoren, kolektorea 1-1539 zenbakiko lurzatitik luzatuko da, Santa Engrazia ibaian isurtzeko punturaino. Jarduketa horri esker, jariatze urak sare bateratutik bereizi ahal izango dira, araztegiaren errendimendua hobetuko da eta urak hartzen dituen ibilgura isurketa egitean haren uren kalitatea arriskuan jarriko ez dela bermatuko da.

1.1.2. Proiektatutako irtenbidea:

Proiektatutako irtenbidea Zabaldea kale osoan eta San Bartolome kaleko 140 metro inguruko tarte batean euri uren kolektore berri bat eraikitzea da. Ondoren, kolektorea 1-1539 zenbakiko lurzatitik luzatuko da, Santa Engrazia ibaian isurtzeko punturaino.

Sistemak hustubide eremu bat du, harea kentzeko gailuz eta hidrokarburoak bereizteko gailuz hornitua, jariatze urei ibilgura iritsi aurretik aurretiazko tratamendua emango zaiela bermatzeko. Era berean, hustubide instalazioetaraino iristeko eta mantentze lanak egiteko bide bat proiektatu da, bai eta obrek iraun bitartean materialak pilatzeko eta makinak gordetzeko aldi baterako eremu bat ere. Lanak amaitu ondoren, eragindako berdeguneak lehengoratzea eta okupatutako lurrak leheneratzea aurreikusten da.

1.1.3. Proiektatutako jarduketen deskribapena.

1.1.3.1. Euri uren kolektorea.

Proiektuak euri uren kolektore bat egitea aurreikusten du, lurzoru urbanizatuek, bideek eta berdeguneek osatutako 151.476 m^2-ko azalerako jariatze urak biltzeko. Kolektorea San Bartolome eta Zabaldea kaleetatik igaroko da, eta galtzadako errei bakarra hartuko du, obrak egin bitartean zirkulazioari eutsi ahal izateko.

Hodi nagusiak 374,11 m-ko luzera izango du, eta 630 eta 1.200 mm arteko diametroa duten PVCzko eta hormigoi armatuzko hodiekin egingo da. Ibilbidean erregistro putzu estankoak jarriko dira norabide aldaketetan eta lotuneetan, ehuneko 0,6 eta ehuneko 1,0 arteko maldekin.

Kolektorearen sakonera 2,06 eta 4,61 m artekoa izango da, eta horri esker, lehendik dauden drainatze sareekin lotu ahal izango da eta eragindako zerbitzuen azpitik igaro ahal izango da. Lubakiek 1,20 m-ko gehieneko zabalera izango dute hodi nagusian, eta 0,50 m-koa lurzati pribatuetarako hartuneetan.

Obrek iraun bitartean, 5.280,11 m^2-ko azalera aldi baterako okupatzea aurreikusten da, makinak igarotzeko eta materialak pilatzeko. Horrez gain, jarduketak 583,02 m^2-ko azalera okupatuko du modu iraunkorrean. Instalazioa amaitu ondoren, galtzadetako, espaloietako eta berdeguneetako zoladurak osorik lehengoratuko dira, eta aurreko egoera berreskuratuko da, zoladura berriak eginez eta lorategi eremuak landare lurrez betez.


1.1.3.2. Jaitsiera mailakatua, harea kentzeko gailuak/hidrokarburoak bereizteko gailuak eta isurketarako kanal trapezoidala.

Kolektorearen plataformaren eta Santa Engrazia ibaiaren artean dagoen 6,04 m-ko desnibela gainditzeko, proiektuak 17,50 m-ko luzera eta 3 m-ko zabalera izango dituen jaitsiera mailakatu bat egitea aurreikusten du. Bost ganberaz eta lau jauziz osatuta egongo da, euri urak modu kontrolatuan husteko.


Jaitsieraren irteeran, harea kentzeko eta hidrokarburoak bereizteko sistema bat instalatuko da. Tratamendu hidrodinamikoko bi unitatek osatuko dute sistema, eta sedimentuak, solido flotatzaileak, olioak eta koipeak atxikitzeko gaitasuna izango dute, urak ibilgura isuri aurretik. Sistemak sarrerako kutxatila banatzaile bat eta irteerako beste kutxatila bat ditu, bai eta emari handiak arintzeko hodi bat ere. Aldizkako mantentze lanak egitea aurreikusten da: kutxatilak garbituko dira sedimentuak eta hidrokarburoak biltegiratzeko ahalmenaren ehuneko 70 eta ehuneko 80 artean betetzen direnean.

Santa Engrazia ibaira egingo den azken isurketa lurrean egindako sekzio trapezoidaleko kanal baten bidez egingo da. Kanalak 50 m inguruko luzera eta ehuneko 0,5eko malda izango ditu, eta ibairatzen den tokian harrizko estaldura izango du, higadura prozesuak saihesteko.


Azpiegitura horiek modu iraunkorrean hartuko duten azalera 488,76 m²-koa da. Obrak egin bitartean, berriz, 1.408,13 m²-ko azalera erabiliko da aldi baterako, eta lanak amaitutakoan eragindako berdeguneak lehengoratzea aurreikusten da.



Jaitsiera mailakatua, industrialdeko plataformaren eta Santa Engrazia ibaiaren ertzeko eremuaren arteko desnibela gainditzeko (poligono berdea). Laranjaz, kolektorearen lubakia; grisez, hustubidearen egituraren gainerako zatia



Harea kentzeko eta hidrokarburoak bereizteko sistema (poligono berdea), eta hustubidearen egituraren gainerako zatia (poligono grisa)



Santa Engrazia ibaira (Ierro urdin iluna) azken isurketa egiteko sekzio trapezoidaleko kanala (poligono berdea). Azken tartea harri-lubetaz egina

1.1.3.3. Sarbide eta mantentze lanetarako bidea.

Isurketa eremuan dauden instalazioen ustiapena eta kontserbazioa errazteko, sarbide eta mantentze lanetarako bide bat egitea aurreikusten da, ibilgailuak eta makinak harea kentzeko gailuetara eta hidrokarburoak bereizteko gailuetara iritsi ahal izan daitezen.

Bidea Padurea kaletik abiatuko da, eta lehendik dagoen bidezidor batetik igaroko da Santa Engrazia ibaiko hustubideraino. Proiektu teknikoaren arabera, 890 m-ko luzera izango du. Bideak 2,5 m-ko zabalera izango du, eta 30 cm-ko lodierako material pikortsuaren geruza batez osatutako zoladura aurreikusten da. Bideak guztira 3.423,18 m²-ko azalera hartuko du.

Bide horrek instalazioak aldizka ikuskatzeko, garbitzeko eta mantentzeko lanak erraztuko ditu, ustiapen fasean behar bezala funtzionatuko dutela bermatuz eta ingurumenaren aldetik sentikorragoak diren eremuetatik sartu beharra saihestuz.

Ibilbidearen zati handi bat ingurumen sentikortasun handiko eremu batean dagoenez, behin betiko trazadura egokitu beharko da lehendik dagoen ezpondaren beheko ertzetik ahalik eta hurbilen igaro dadin. Horretarako, lehentasunez aprobetxatuko dira aldez aurretik eraldatutako eremuak edo landaredi naturalik gabekoak, eta, teknikoki bideragarria den neurrian, ibaiertzeko landaredi formazioen barrutik igarotzea saihestuko da.

Era berean, bidearen zabalera mantentze lanetarako ibilgailuak segurtasunez sartzeko ezinbestekoa den gutxienekora murriztu beharko da, lurzoruaren azalera behar baino gehiago hartzea eragingo luketen gehiegizko zabalerak, bazterbideak edo azalera osagarri iraunkorrak sortzea saihestuz.

Adierazi behar da bidearen zati handi batek ES2110010 “Zadorra ibaia” Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) babes eremu periferikoan dauden lurrak hartzen dituela, bai eta 10 urteko (T=10), 100 urteko (T=100) eta 500 urteko (T=500) errepikatze denboraldiei dagozkien uholde arriskuko eremuak ere, ibilbidearen tarteen arabera. Inguruabar horiek nabarmen handitzen dute eragindako eremuaren ingurumen eta hidraulika sentikortasuna, eta, horrenbestez, arreta berezia jarri behar da ingurumen integraziorako neurrietan, hartutako azalera minimizatzeko neurrietan eta uholdeen dinamika naturalarekiko bateragarritasuna bermatzeko neurrietan.

Ondorioz, bidearen behin betiko diseinuak berariaz izan beharko du helburu ibaiertzeko habitatetan, Zadorra ibaia KBEaren kontserbazio xede diren balioetan eta uholde lautadaren funtzionamendu hidraulikoan eragindako inpaktua ahalik eta gehien murriztea. Horretarako, saihestu beharko dira beharrezkoak ez diren lur lubetak, justifikaziorik gabeko lur mugimenduak eta uholde arriskuko eremuen husteko edo ura biltegiratzeko ahalmena murriztu dezaketen jarduketak.

1.1.3.4 Materialak pilatzeko eta makinak gordetzeko eremua.

Obrak gauzatzeko fasean, materialak pilatzeko eta makinak gordetzeko aldi baterako eremu bat prestatuko da, obrako eragiketa osagarriak bertan zentralizatzeko. Lanak amaitu ondoren, instalazio osagarriak desmuntatuko dira eta eragindako lurrak leheneratuko dira, eremua aurreko egoerara itzuliz.



Proiektuan gauzatu beharreko jarduketen eskema.
Laranjaz, kolektorea; berdez, hustubide eremua; horiz, hustubide eremura sartzeko bidea;
eta arrosaz, materialak pilatzeko eremua

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa:

Ebaluatu beharreko eremua Goiain industrialdearen hegoaldeko sektorean dago, Legutioko udalerrian (Araba). Jarduketa Zabaldea kale osoan, San Bartolome kaleko 140 metro inguruko tarte batean eta kolektore berriaren luzapenean egingo da. Kolektorea 1-1539 zenbakiko lurzatian barrena luzatuko da, industrialdearen hego-ekialdeko muturrean dagoen Santa Engrazia ibaiko isurketa punturaino.

Jarduketa gehienak erabat finkatutako hiri eta industria ingurune batean egingo dira. Ingurune horrek topografia ia laua du, 530,00 eta 532,20 m arteko kotekin, eta hiri azpiegituren eta zerbitzuen sare zabala dago bertan. Horien artean, saneamendu, ur hornidura, energia elektriko eta argiteria publikoko sareak nabarmentzen dira. Hala ere, Santa Engrazia ibaira ura isurtzeko puntua 521,34 m-ko kotan dago, eta horrek 8,7 m inguruko desnibela sortzen du industrialdeko plataformarekiko.

Ondorioz, kolektorearen trazadura ia osorik lehendik eraldatutako bideetatik eta espazioetatik igarotzen bada ere, jarduketaren azken tartea ingurune natural batean dago. Tarte horretan sartzen dira jaitsiera mailakatua, harea kentzeko eta hidrokarburoak bereizteko instalazioak eta Santa Engrazia ibaira ura isurtzeko kanalaren azken zatia. Ingurune hori ES2110010 "Zadorra ibaia" Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) babes eremu periferikoarekin bat dator. Eremu hori martxoaren 17ko 35/2015 Dekretuaren bidez ezarri zen; dekretu horren bidez, espazio hori KBE izendatu zen eta haren kontserbazio neurriak onartu ziren.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Proiektatutako jarduketen zati bat ES2110010 "Zadorra ibaia" KBEaren babes eremu periferikoan egoteaz gain, jarduketa horien zati handi batek, eta bereziki sarbide eta mantentze lanetarako bideak, 10 urteko (T=10), 100 urteko (T=100) eta 500 urteko (T=500) errepikatze denborei dagozkien uholde arriskuko eremuetan dauden lurrak hartzen ditu, jarduketaren tarteen arabera. Inguruabar horrek nabarmen handitzen du eragindako eremuaren ingurumen sentikortasuna eta sentikortasun hidraulikoa, espazio berean bat egiten baitute biodibertsitatea babesteko figurek, ibai korridore ekologikoek eta uholdeen dinamika naturalaren eraginpeko eremuek.

Era berean, kontuan hartu behar da sarbide bidea dela eragindako ingurune naturalean luzera handiena duen elementu lineala. Horregatik, haren diseinuak eta gauzatzeak ibaiertzeko habitatetan hartutako azalera ahalik eta gehien murriztea izan beharko dute helburu. Horretarako, bidea lehendik dagoen erliebera egokitu beharko da, ezpondaren beheko ertzetik ahalik eta hurbilen igaro, eta haren zabalera ustiapen eta mantentze lanak bermatzeko ezinbestekoa den gutxienekora mugatu.

Espazio babestuak, ibai korridore ekologikoak, batasunaren intereseko habitatak eta uholde arriskuko eremuak toki berean egoteak ingurumen hauskortasun handiko lurralde testuingurua eragiten du. Horregatik, aurreikusitako erabilera iraunkor eta aldi baterakoetarako hartuko diren azalerak ahalik eta gehien murriztu behar dira, eta ibaiertzaren funtzionamendu ekologikoa edo uholde lautadaren ahalmen hidraulikoa alda dezakeen edozein jarduketa saihestu.

1.3. Aztertutako aukerak:

Ingurumen dokumentuan aztertu diren aukerak ondokoak dira:

• 0. aukera: aukera honetan, ez litzateke gauzatuko Goiain industrialdeko (Araba) San Bartolome eta Zabaldea kaleetan euri uren kolektorea eraikitzeko proiektua, eta saneamendu sistemaren egungo egoerari eutsiko litzaioke.

Gaur egun, industrialdeak saneamendu sare bateratua du, eta sare horretan, gainazaleko jariatze uretatik datozen euri urak hondakin urekin batera eramaten dira lehendik dagoen araztegiraino. Antolamendu horren ondorioz, euria egiten duenean nabarmen handitzen dira hondakin uren araztegira (HUA) iristen diren emariak, eta horrek eraginkortasun hidraulikoa eta arazketa eraginkortasuna murrizten ditu, araztegiaren funtzionamendua okertuz.

Proiektua gauzatu ezean, ezingo litzateke arazo hori konpondu, eta sare bateratuaren eta araztegiaren gainkargak bere horretan jarraituko luke, baita industrialdeko euri urak behar bezala kudeatzeko dauden mugek ere. Horregatik, funtzionamenduaren, hidraulikaren eta ingurumenaren ikuspegitik, 0. aukera bideraezintzat jotzen da eta baztertu egiten da, ez baitu aukerarik ematen saneamendu sistema hobetzeko helburuak lortzeko, ezta arazketa azpiegituraren funtzionamendua optimizatzeko ere.

• 1. aukera: aukera horrek San Bartolome eta Zabaldea kaleetan zehar azkenean proiektatutakoaren antzeko kolektore trazadura proposatzen zuen, baina Santa Engrazia ibaiko isurketa puntuaren kokapena aldatzen zuen, industrialdearen hegoaldeko sektorera eramanez, 1. poligonoko 1539 katastro lurzatiaren mendebaldeko muturretik.



1. aukerako kolektorearen trazadura eta hustubide eremua (lerro laranja eta beltza)

Irtenbide horrek 707,86 m-ko luzerako jarduketa dakar guztira, eta Santa Engrazia ibaiaren ertzari lotutako ingurune naturalean azalera handiagoa hartzea eskatzen du, kolektorearen azken tartearen eta hustubide azpiegituren luzera handituz. Ondorioz, aukera horrek nabarmen eragin handiagoa du ibaiertzeko landaredian eta ibilguari lotutako habitatetan, bai eta uhalde-enararen (*Riparia riparia*), igarabaren (*Lutra lutra*) eta bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) kudeaketa planetan zehaztutako interes bereziko eremuetan ere. Era berean, ES2110010 "Zadorra ibaia" Kontserbazio Bereziko Eremuari (KBE) eta haren babes eremu periferikoari ere eragiten die.

Gainera, aukera horrek 1539 zenbakiko lurzatiaren hego-mendebaldeko muturrean azalera handiagoa hartzea dakar. Eremu hori Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartuta dago.

Horregatik guztiagatik, 1. aukera ingurumenaren eta teknikaren ikuspegitik ez da hain egokia, ingurumen inpaktu handiagoa eragiten duelako, bai espazio babestuetan, bai inbentarioan jasotako lurzoruetan, eta ez duelako abantaila funtzional nabarmenik eskaintzen azkenean hautatutako irtenbidearen aldean. Hori dela eta, baztertu egiten da.

• 2 aukera (hautatua): aukera horrek San Bartolome eta Zabaldea kaleetan zehar euri uren kolektorea egitea aurreikusten du, isurketa puntua Goiain industrialdearen ekialdeko muturrean kokatuta. Irtenbide horretan, jarduketaren guztizko luzera 635,07 m-koa da, 1. aukerakoa baino txikiagoa. Horri esker, kolektorearen azken tartearen luzera eta Santa Engrazia ibaiari lotutako ingurune naturalean hartuko den azalera murriztu daitezke.



2. aukerako kolektorearen trazadura eta hustubide eremua (lerro laranja eta beltza)

Ondorioz, aukera horrek ibaiertzeko landaredian eta ingurumen sentikortasun handieneko espazioetan eragindako inpaktua minimizatzen du, ES2110010 "Zadorra ibaia" KBEaren babes eremu periferikoan hartuko den azalera mugatuz eta bisoi europarraren (*Mustela lutreola*), igarabaren (*Lutra lutra*) eta uhalde-enararen (*Riparia riparia*) kudeaketa planetan zehaztutako interes bereziko eremuetan duen eragina murriztuz. Era berean, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako lurrak hartzea saihesten du.

Horregatik guztiagatik, 2. aukera ingurumenaren eta teknikaren ikuspegitik egokiena dela jotzen da, proiektuaren funtzionaltasun hidraulikoa eta natura ondarearen eta biodibertsitatearen gaineko eraginak minimizatzea hobekien bateratzen dituen irtenbidea delako. Horrenbestez, aukera hori hautatu da azkenean.

Ingurumenaren ikuspegitik, ontzat jotzen da euri uren kolektorearen trazadurarako egindako aukeren azterketa, Santa Engrazia ibaiari lotutako ingurune naturalean azalera txikiena hartzen duen eta ES2110010 "Zadorra ibaia" KBEaren babes eremu periferikoan, ibaiertzeko habitatetan eta babestutako fauna espezieentzako interes bereziko eremuetan eragin txikiena duen irtenbidea hautatu delako.

Bestalde, sarbide eta mantentze lanetarako bideari dagokionez, eta ingurumen izapidetzean egindako oharrak kontuan hartuta, proiektuaren sustatzailearekin harremanetan egon dira. Sustatzaileak adierazi du prest dagoela behin betiko trazadura egokitzeko, obren zuinketan eta gauzatzean. Ildo horretan, bidearen trazadura lehendik dagoen ezpondaren beheko ertzera egokitu beharko da, teknikoki ahalik eta gehien. Horrela, landaredi naturalean, ES2110010 "Zadorra ibaia" KBEaren babes eremu periferikoan eta uholde arriskuko eremuetan hartuko den azalera murriztu beharko da. Era berean, bidearen zabalera proiektatutako instalazioak ikuskatzeko, mantentzeko eta ustiatzeko lanak bermatzeko behar-beharrezkoa den gutxienekora mugatu beharko da.

Ondorioz, uste da azkenean proposatutako irtenbideak bidearen ingurumen integrazioa hobetzea eta ibai inguruneko natura balioetan eragindako inpaktuak minimizatzea ahalbidetzen duela, proiektatutako azpiegituren funtzionaltasuna arriskuan jarri gabe.

2. Kontsulta aldiaren laburpena

Hona hemen kontsultatu ziren erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda, haietatik zeinek erantzun duten adierazita:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza	√
EEE - Energiaren Euskal Erakundea	
URA - Uraren Agentzia	√
IHOBE- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Arabako Kontzejuen Elkartea	
Arabako Natur Institutua – ANI	
Eguzki talde ekologista	
Ekologistak Martxan	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Hontza Natura Elkartea	
Gaia elkartea	
Mendizaleen Federazioa. Ingurumen Atala	
Aranzadi Natura Zientzien Elkartea	
SEO Birdlife – Espainiako Ornitologia Elkartea	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
Legutioko udala	
Urbinako Administrazio Batzarra	
Goiaingo Administrazio Batzarra	
Urrunagako Administrazio Batzarra	
Arratzua-Ubarrundiako udala	√
Lukuko Administrazio Batzarra	
Betolatzako Administrazio Batzarra	
Gorbeialdeko Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua (Ura)	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua	√

Era berean, espedientearen dokumentazioa jendearen eskura jarri zen Arabako Foru Aldundiaren webgunean.

Jarraian, jasotako erantzunetan jasotako alderdien laburpen txikia egin da (Arabako Foru Aldundiaren gobernu irekiaren atarian – irekia.araba.eus – alegazio edo gogoetetatik jasotako dokumentuen kopia osoak eransten dira, jendaurreko informazioaren atalean, Ingurumen Ebaluazioaren kategorian – 26/04 EIA S espedientea):

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzak uste du proiektuak ingurumen hobekuntza ekar dezakeela egungo egoerarekin alderatuta, euri urak saneamendu sare bateratutik bereizteko eta hondakin uren araztegiaren (HUA) gainkarga murrizteko aukera ematen duelako. Horrek Santa Engrazia ibaiari eta Zadorra Ibaia/Río Zadorra KBEari lotutako ibai sistemako uren kalitatea hobetzen lagunduko du. Hala ere, obren fasea identifikatzen du ingurumen sentikortasun handieneko alditzat, bereziki ibaira isurtzeko puntua egiteari dagokionez.

Gogoeta nagusien artean, adierazten du Natura 2000 Sarearen gaineko eraginen ebaluazioa osatu beharko dela, KBEaren Babes Eremu Periferikoaren (BEP) gaineko eraginen azterketa gehituta, ingurumen dokumentuak espazio babestuaren mugaketa baino ez baitu kontuan hartu.

Landaredia eta Batasunaren intereseko habitatak babesteari dagokionez, baso alubialen 91E0* habitatari aurreikusitako eragina nabarmentzen du, eta proposatutako ingurumen leheneratzea nahikoa ez dela irizten dio. Adierazten du neurri zuzentzaileak eta konpentsazio neurriak inpaktuaren tamainara egokitu beharko direla, eta gutxienez 1:2ko azalera konpentsazioaren irizpidea aplikatu beharko dela (leheneratutako azalera, ezabatutako azalerarekiko). Era berean, uste du ibaiertzeko eremuan egin beharreko leheneratze jarduketa guztiek 91E0* habitata berreskuratzea izan beharko luketela helburu, eta lehentasuna eman beharko litzaiokeela ibaiertzeko basoa leheneratzeari, belar landareen eta espezie eztidunen eremuak ezartzearen aurretik.

Halaber, beharrezkotzat jotzen du ingurumena leheneratzeko eta paisaian integratzeko proiektu espezifiko bat idaztea, erabiliko diren espezieak, landaketa dentsitateak, gauzatzeko metodologia, mantentze lanak eta berme aldia zehaztuko dituena. Proiektu hori Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak baliozkotu beharko du, proiektua behin betiko onartu aurretik.

Faunari dagokionez, azpimarratzen du arriskurik handiena obrek iraun bitartean ibai ingurunearen kalitate ekologikoan izan daitezkeen eraginetatik datorrela. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen du neurri espezifikoak hartzea uhertasuna handitzea, sedimentuak ibaira iristea eta ustekabeko isurketak gertatzea saihesteko, bereziki bisoi europarra eta igaraba bezalako espezie babestuetan izan dezaketen eraginagatik. Neurri horiek Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuaren aldez aurreko onespena izan beharko dute.

Era berean, proiektatutako aurretratamendu sistemaren egokitasuna (harea kentzeko gailuak eta bereizgailu hidrodinamikoak) berrikustea eta justifikatzea gomendatzen du, beste aukera batzuk aztertuz edo hautatutako irtenbidea aurreikusitako kalitate helburuak lortzeko nahikoa dela egiaztatuz; izan ere, haren iritziz, sistemak mugak ditu disolbatutako kutsatzaile jakin batzuk edo partikula finak kentzeko.

Azkenik, inbentarioan jasotako lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurretan eraginak izan daitezkeela ohartarazten du, zehazki 01058-00096 kodeko lurzatian. Horregatik, gogorarazten du nahitaez bete behar direla 4/2015 Legean, lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzekoan, eta hura garatzeko araudian ezarritako xedapenak.

Ondorio gisa, erakundeak proiektuaren aldeko txostena egin du natura ondarearen ikuspegitik, betiere Natura 2000 Sarea babesteko neurriak indartzen badira, leheneratze ekologikorako jarduketak zabaldu eta zehazten badira, obrek iraun bitartean ibai ingurunea babestuko dela bermatzen bada eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei buruz aplikatu beharreko araudia betetzen bada.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak jakinarazi du proiektu horren esparruan ez dela Kultura Ondarearen gaineko eraginik antzeman.

— URA - Uraren Euskal Agentziak hasiera batean jakinarazi du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri diola, egokitzat joz gero gaiari buruzko txostena egin dezan, 21/2013 Legean, abenduaren 9koan, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoan, ezarritakoarekin bat etorriz.

Ondoren, beste txosten bat egin du, eta bertan Goiain industrialdeko euri uren kolektorearen proiektuaren helburuaren aldeko iritzia eman du. Izan ere, uste du proiektuak lehendik dagoen hondakin uren araztegiaren (HUA) funtzionamendua hobetzea ahalbidetuko duela, araztegiak jasotzen dituen euri uren emariak murriztuta, gainezkatzeak saihestuta eta Santa Engrazia ibaiko uren kalitatea hobetzen lagunduta.

Hala ere, URAk adierazten du jarduketak Santa Engrazia ibaiaren zaintza eremuan, zortasun eremuan eta, neurri batean, jabari publiko hidraulikoan eragina duela. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen du ingurumen dokumentuan aurreikusitako babes eta zuzenketa neurri guztiak

aplikatzea, bai eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko obra baimena aldez aurretik lortzea ere, Uraren Euskal Agentziaren bidez izapidetuta. Baimen horretan, ibai ibilguan eta hari lotutako habitatetan eraginak minimizatzeko beharrezkoak diren baldintza espezifikoak ezarriko dira.

Era berean, jarduketa eremua Natura 2000 Sareko Zadorra ibaia KBEaren (ES2110010) barruan dagoenez, URAk gogorarazten du 34/2015 Dekretuan ezarritakoa bete behar dela, bereziki espazio babestuaren osotasuna kontserbatzeari eta ingurumen integraziorako irtenbideak aplikatzeari dagokienez. Irtenbide horiek, ahal dela, bioingeniaritzako eta ingeniaritza naturalistikoko teknikaketan oinarritu beharko dira, ezpondak eta ibaiertzak egonkortzeko.

Azkenik, azpimarratzen du nahitaez leheneratu behar direla bertako ibaiertzeko landarediarekin obrek aldi baterako hartutako azalera guztiak, jaitsiera mailakatuaren, harea kentzeko gailuen eta isurketa kanalaren eremuan. Era berean, gogorarazten du debekatuta dagoela jabari publiko hidraulikora edo lurrera hondakinak edo substantziak isurtzea, dagokion administrazio baimenik gabe.

— Arratzua-Ubarrundiako udalak jakinarazi du ez duela aurkeztutako proiektuari buruzko alegaziorik egiteko.

— Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak jakinarazi duenez, proiektuak ez dakar eragin zuzenik ondare arkeologikoan. Nolanahi ere, berehala jakinarazi beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari proiektuak eragina izan dezakeen aldaketa oro eta/edo lanek dirauten bitartean egin daitekeen edozein aurkikuntza arkeologiko.

— Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak egindako txostenean adierazten duenez, historia eta arkitektura ondarearen ikuspegitik ez dago inolako eragozpenik proiektua izapidetzeko, ez baitie eragiten beren balio historiko eta kulturalagatik babestuta dauden elementuei edo higiezinei.

— Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak uste du proiektuak ez duela eraginik Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren araudiaren arabera. Plan hori irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko (2014ko urriaren 17ko EHAA). Nolanahi ere, lanak gauzatzeko zuhaitzak moztu behar badira, nahitaezko administrazio baimena izan beharko da. Baimen hori Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuari eskatu ahal izango zaio, Arabako Foru Aldundiko mendien arloko organo eskuduna den aldetik, 11/2007 Foru Arauak, martxoaren 26koak, Mendiei buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorriz.

— Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak bere txostenean adierazten du jarduketa eremua ingurumen sentikortasun handiko ingurune batean dagoela, eta Zadorra ibaia KBEaren kontserbaziorako funtsezko elementuetan eraginak izan ditzakeela. Elementu horien artean nabarmentzen dira Batasunaren intereseko baso alubialak, bisoi europarra eta igaraba bezalako ugaztun espezie babestuak, arrain komunitateak, ibai ibilguei lotutako hegazti fauna, herpetofauna eta naiadeak.

Mantentze lanetarako aurreikusitako sarbideari dagokionez, txostenak adierazten du ingurumen dokumentuak ez duela haren trazadurarako aukera espezifikorik aztertzen. Proiektatutako bideak 890 m inguruko luzera duela deskribatzen da, eta zati batean lehendik dagoen bidezidor batetik igarotzen dela, baina ez da egiaztatu bidezidor horrek ibilbide osoan jarraitutasuna duenik.

Zerbitzuak adierazten du bidearen 590 m inguruk ibaiertzeko baso bat zeharkatzen dutela, eta horrek landaredia kentzea, obrek iraun bitartean eragozpenak sortzea eta faunari kalteak eragitea ekarriko lukeela, bai eraikuntza fasean, bai ustiapen fasean, mantentze lanetarako ibilgailuen aldizkako joan-etorrien ondorioz. Horregatik, beharrezkotzat jotzen du trazaduraren beste aukera batzuk aztertzea, ibaiertzeko basoaren barrutik igarotzea saihesteko eta landarediaren eta faunaren gaineko eraginak murrizteko.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Era berean, txostenak babes eta zuzenketa neurri batzuk proposatzen ditu. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

• ES2110010 Zadorra ibaia KBEaren eremuan eta bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) eta igarabaren interes bereziko eremuetan egiten diren jarduketak bisoi europarraren ugalketarako aldi kritikotik kanpo gauzatu beharko dira, hau da, martxoaren 15etik uztailaren 31ra bitarteko alditik kanpo, haren kudeaketa planean xedatutakoarekin bat etorriz, natura ondarearen arloko foru organo eskudunaren berariazko baimena izan ezean. Era berean, ugaltzen ari diren hegaztien gaineko eraginak minimizatzeko, jarduketa eremu osoan sastrakak garbitzeko, zuhaitzak mozteko eta landaredia kentzeko lanak martxoaren 15etik abuztuaren 20ra bitarteko alditik kanpo egin beharko dira. Azken data hori bat dator usapal europarraren (*Streptopelia turtur*) kudeaketa planean ezarritako aldi kritikoaren amaierarekin.

• Obrak hasi aurretik, sustatzaileak proiektu espezifiko bat aurkeztu beharko dio Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko Natura Ondarearen Zerbitzuari. Proiektu horretan zehatz-mehatz mugatu beharko dira aldi baterako eta behin betiko hartuko diren azalerak, landaredi naturalean eta Batasunaren intereseko habitatetan (BIH) izango diren eraginen kokapena eta kuantifikazioa, bai eta leheneratze ekologikorako proposamen bat ere. Proposamen horrek eragindako azaleraren pareko azalera bat lehengoratzea aurreikusi beharko du, gutxienez, eremuko landaredi potentzialaren berezko zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak erabiliz, leheneratutako eremuen integrazio ekologikoa eta paisaia integrazioa bermatzeko. Proposamenak natura ondarearen arloko foru organo eskudunaren adostasuna izan beharko du lanak hasi aurretik.

• Ibaiertzeko ezponda naturalak eta uhalde enaren koloniak har ditzaketen legar eremuak babestu beharko dira. Era berean, materialen pilaketak aurreikusitako eremuetara mugatu beharko dira, habitat sentikorretan azalerarik ez hartzeko.

• Materialak sustatzaileak proposatutako eremuan baino ezin izango dira pilatu, eta inola ere ez KBEaren eremuan edo eremu sentikorretan, hala nola ibaiertzean, hezeguneetan edo urpean geratzen diren eremuetan, eremu higroturbosoetan, zuhaixka heskaietan eta abarretan.

• Prebentzio neurri egokiak eta beharrezkoak hartuko dira, ur ibilguetara sedimentu gehiegi iristea saihesteko.

• Makineria astunaren zirkulazioa ahalik eta gehien mugatu beharko da jabari publiko hidraulikoaren 5 metroko zortasun eremuan, eta, bereziki, ibai ibilguaren barruan. Era berean, debekatuta dago makineria astuna eremu horietan aparkatzea, erabiltzen ari ez denean.

• Aurkeztutako dokumentazioan ezarritakoaren arabera, obrak gauzatzeko behar-beharrezkoak diren lur mugimenduak baino ez dira baimenduko.

• Gaur egun dauden sarbideak erabiliko dira, eta debekatuta egongo da bide berriak irekitzea, hustubidearen eremura sartzeko proiektatutako bidea izan ezik. Bide horri dagokionez, Zerbitzu honek beharrezkotzat jotzen du aukera bideragarriak planteatzea, lehen azaldu den bezala.

• Eraikuntza prozesuan, irekita geratzen diren eta faunarentzat "tranpa efektua" eragin dezaketen lubakietan, aldi baterako arrapalak jarri beharko dira, animaliek ihes egin ahal izateko.

· Berariaz debekatuta dago jarduketak gauzatzean sor daitezkeen hondakinak eta landare hondarrak isurtzea. Oso komenigarritzat jotzen da ebaketen hondakinak tokian bertan birrintzea. Lanak egiteko eremuan, lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegiratu behar balira, lanek irauten duten epean, ontzi estankoak, biltegi iragazgaiztuak edo bestelako sistema batzuk gaitu beharko dira (lixibiatuak biltzeko sistemak dituzten azal iragazgaitzen gainean beti), eta debekatuta dago erabilitakoak isurtzea. Azken horiek kudeatzaile baimendu bati emango zaizkio, uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, hondakin eta lurzoru kutsatuenak, eta berariazko beste zenbait araudik xedatutakoaren arabera.

• Lanak amaitutakoan, garbiketa kanpaina zorrotza egingo da jarduketa eremuan. Horretarako, ibaiertzean dauden hondakinak ere bilduko dira, zabortegi baimendu batera eramateko, eta, hala badagokio, kudeatzaile baimendu batek kenduko ditu, 7/2022 Legeak, apirilaren 8koak, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorriz.

• Zerbitzu honek Batasunaren intereseko habitatetan eta bertako espezieen habitatetan eragin negatiboak izan direla zehazten badu, sustatzaileak habitat horiek leheneratzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartu beharko ditu.

Oro har, txostenak ondorioztatzen du ezinbestekoa dela neurri horiek proiektuan txertatzea eta sarbidearen trazadura berriz aztertzea, kontserbatu beharreko natura balioen gaineko eraginak minimizatzeko.

3. Eragina jaso lezaketen elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen inpaktu nagusiak

«Goiain industrialdeko (Araba) San Bartolome eta Zabaldea kaleetako euri-uren kolektorea eraikitzeko proiektutik» eratorritako ingurumen inpaktu nagusiak proiektuaren garapen faseen arabera bereizten dira. Alde batetik, eraikuntza fasea dago; fase horretan gertatzen dira lur mugimenduek, lubakiak irekitzeak, makineriaren joan-etorriek, lurrak aldi baterako hartzeak eta hustuketa azpiegiturak gauzatzeak eragindako inpaktu ia guztiak. Bestetik, ustiapen fasea dago, azpiegitura berriak bertan behin betiko egoteak eta aldizkako mantentze lanek ezaugarritzen dutena. Ustiapen fase horretan, araztegiaren funtzionamendua hobetuko denez, Santa Engrazia ibaiaren ibilguko uren kalitatea hobetzea espero da. Oso inpaktu positibo esanguratsua da hori; beraz, proiektuaren helburua oso ontzat jotzen da, espazio babestuarentzat eta haren kalitate ekologikoa kontserbatzeko hobekuntza ekarriko duelako.

Jarraian, aztertutako proiektuak ingurumenean dituen eragin nagusiak laburbildu dira:

ERAGINDAKO INGURUKO EREMUA / ELEMENTUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Geologia, geomorfologia	Jarduketa eremua Arabako Lautadan dago, Euskal-Kantauriar arroan. Bertan, tupa eta kareharri tupatsuz osatutako materialak dira nagusi, pitzaduren bidezko iragazkortasun txikia dutenak. Neurri txikiagoan, Santa Engrazia ibaiari lotutako metakin alubialak eta alubio-kolubialak ere badaude Proiektatutako jarduketak azalekoak dira nagusiki; beraz, ez da aurreikusten eremuko geologian aldaketa esanguratsurik gertatzea, ezta lurpeko uretan eragin iraunkorrik izatea ere. Obren fasean, arrisku nagusia lurzorua eta lurpea toki jakin batzuetan kutsatzeko aukeratik dator, makineriatik datozen erregaien, olioen edo bestelako substantzien ustekabeko isurketen ondorioz. Arrisku hori prebentzio neurriak aplikatuz minimizatuko da, eta, isurketarik gertatuz gero, eragindako materialak kendu eta behar bezala kudeatuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera. Ustiapen fasean ez da aurreikusten eremuko geologian edo hidrogeologian eraginik izatea. Ondorioz, ingurumen faktore horren gaineko inpaktua negatibotzat, zuzenekotzat, aldi baterakotzat, itzulgarritzat eta leheneragarritzat jotzen da, eta haren magnitudea bateragarria dela baloratzen da
Hidrogeologia	Jarduketa eremua Kuartango-Agurain lurpeko ur masaren gainean dago. Ur masa hori Zadorraren arroan dago, eta, nagusiki, Goi Kretazeoko tupa eta kareharri tupatsuzko materialek osatzen dute. Ur masa horrek egoera kuantitatibo eta kimiko ona du, eta ez dago kutsadura puntualaren zantzurik. Prezipitazioen infiltrazioaren bidez birkargatzen da, eta haren kalteberatasuna txikia da gehienbat. Hala ere, eremuaren hego-ekialdeko sektoreak, Santa Engrazia ibaiarekin lotzen den eremuarekin bat datorrenak, kalteberatasun oso handia du. Azaleko urei dagokienez, proiektuak Santa Engrazia ibaian du eragina, ibai horrek jasoko baititu kolektore berriak bildutako euri urak Eraikuntza fasean, ingurumen faktore horren gaineko eragin potentzial nagusiak lur mugimenduekin, makineriaren joan-etorriekin eta ibai ibilguaren inguruan obrak gauzatzearekin lotuta daude. Jarduera horiek solido esekiak une jakin batzuetan uretara iristea eta uren kalitatean aldi baterako aldaketak eragin ditzakete. Era berean, obretako makineriatik datozen erregaien, olioen edo bestelako substantzien ustekabeko isurketek kutsadura eragiteko arriskua dago. Arrisku hori bereziki garrantzitsua da, jarduketaren azken zatia ingurumen sentikortasun handiko eremua delako. Hala ere, aurreikusitako prebentzio eta zuzenketa neurriak aplikatzeak arrisku horiek minimizatzea ahalbidetuko du Ustiapen fasean ez da aurreikusten azaleko uretan edo lurpeko uretan inpaktu negatiborik izatea. Aitzitik, jarduketari esker, euri urak lehendik dagoen saneamendu sare bateratutik bereizi ahal izango dira. Horrela, gaur egun industrialdeko araztegira iristen diren emariak murriztuko dira, eta araztegiaren funtzionamendu hidraulikoa eta tratamenduaren eraginkortasuna hobetuko dira. Gainera, isurketa egin aurretik harea kentzeko eta hidrokarburoak bereizteko sistema bat jarriko denez, ez da arriskuan jarriko Santa Engrazia ibaira isuritako uren kalitatea. Ondorioz, obren fasean hidrologiaren eta hidrogeologiaren gaineko inpaktua negatibotzat, zuzenekotzat, aldi baterakotzat, itzulgarritzat eta leheneragarritzat jotzen da. Hasierako balorazioa moderatua da, ingurunearen sentikortasuna dela eta, baina bateragarritzat jotzen da aurreikusitako prebentzio eta zuzenketa neurriak aplikatu ondoren. Ustiapen fasean, berriz, proiektuaren eragin orokorra bateragarria da, eta saneamendu sistemaren funtzionamendurako onuragarria ere izan daiteke

ERAGINDAKO INGURUKO EREMUA / ELEMENTUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Hidrologia	Jarduketa eremua Santa Engrazia ibaiaren azpiarroan dago, Zadorra ibaiaren arroan, Ebroko Demarkazio Hidrografikoaren barruan. Proiektuak zuzenean eragiten dio Santa Engrazia ibaiari, ibai horrek jasoko baititu kolektore berriak bildutako euri urak. Ibai horrek ingurumen sentikortasun handia du, ES2110010 "Zadorra ibaia" KBEaren eta haren babes eremu periferikoaren parte delako, eta, gainera, bisoi europarra, igaraba eta uhalde enara bezalako espezieentzako interes bereziko eremua delako Era berean, zebra muskuilua (*Dreissena polymorpha*) dago ibai ibilguan. Espezie exotiko inbaditzailea da, eta obrak gauzatzean haren hedapena saihestu beharko da. Egoera ekologikoari dagokionez, hurbilen dagoen kontrol estazioak kalitate biologiko eskasa erakusten du, bereziki makroornogabeen eta arrainen komunitateetan. Ibaiertzek, aldiz, kontserbazio egoera ona dute, eta ondo kontserbatutako landaredia duten ibaiertz gisa katalogatuta daude, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren arabera Eraikuntza fasean, azaleko hidrologian izan daitezkeen eragin nagusiak lur mugimenduek, isurketa puntua egiteak, azpiegitura osagarriak ezartzeak eta ibai ibilguaren inguruan makineria ibiltzeak eragingo dituzte. Jarduera horien ondorioz, solido esekiak aldi baterako uretara irits daitezke, jariatze urak sor daitezke eta, ustekabean, azaleko uren kalitateari eragingo lioketen erregaiak, olioak edo bestelako substantzia kutsatzaileak isur daitezke. Eragin horiek bereziki garrantzitsuak dira, inguruneren ingurumen sentikortasun handia dela eta, baita espazio babestuak eta Batasunaren intereseko ibaiertzeko habitatak hurbil daudelako ere. Hala ere, aldi baterako inpaktu itzulgarriak dira, eta aurreikusitako prebentzio eta zuzenketa neurriak behar bezala aplikatuz minimiza daitezke Era berean, adierazi behar da proiektatutako jarduketen zati batek, bereziki sarbide eta mantentze lanetarako bideak eta isurketa puntuari lotutako instalazioek, 10 urteko (T=10), 100 urteko (T=100) eta 500 urteko (T=500) errepikatze denborei dagozkien uholde arriskuko eremuetan dauden lurrak hartzen dituztela, eragindako eremuaren tarteen arabera. Egoera hori proiektuaren ingurumen eta hidraulika arloko baldintzatzaile nagusietako bat da; izan ere, espazio berean bat egiten dute balio ekologiko handiko ibai eremu batek, Zadorra ibaia KBEaren babes eremu periferikoak eta uholde prozesu naturalen eraginpean dauden eremuek Testuinguru horretan, bidearen behin betiko diseinua lehendik dagoen lurrera egokitu beharko da, eta ezpondaren beheko ertzera ahalik eta gehien hurbildu beharko da, teknikoki posible den neurrian, ibaiertzeko habitatetan hartuko den azalera eta uholde lautadaren funtzionaltasun hidraulikoaren gaineko eragina murrizteko. Era berean, bidearen zabalera mantentze lanetarako ibilgailuen sarbidea bermatzeko behar-beharrezkoa den gutxienekora mugatu beharko da, drainatze naturalaren ahalmena alda dezaketen edo lehendik dagoen uholde erregimena eralda dezaketen beharrezkoak ez diren zabalguneak, lubetak edo betelanak saihestuz Ustiapen fasean ez da aurreikusten azaleko hidrologian inpaktu negatibo esanguratsurik izatea. Aitzitik, jarduketari esker, euri urak lehendik dagoen saneamendu sare bateratutik bereizi ahal izango dira. Horrela, industrialdeko araztegiak gaur egun jasaten duen karga hidraulikoa murriztuko da, eta jariatze uren kudeaketa hobetuko da, Santa Engrazia ibaira iritsi aurretik harea kentzeko eta hidrokarburoak bereizteko sistema baten bidez. Horregatik guztiagatik, azaleko hidrologiaren gaineko inpaktua moderatutzat jotzen da obren fasean, ingurune hartzailearen sentikortasuna eta uholde arriskuko eremuen eta espazio babestuen presentzia direla eta. Hala ere, aurreikusitako babes eta zuzenketa neurriak aplikatu ondoren, inpaktua bateragarritzat jotzen da, eta ustiapen fasean aldekoa ere izan daiteke
Lurzorua	Jarduketa eremua Goiain industrialdeko lur urbanizatuetan dago gehienbat. Lur horiek industrialdea eraikitzearekin lotutako betelan antropikoez osatuta daude, eta horien azpian material buztintsuak eta metakin alubialak eta kolubialak ageri dira. Ahalmen agrologikoari dagokionez, jarduketak ez die eragiten Euskadiko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean definitutako balio estrategiko handiko lurzoruei, eremuak industria izaera duelako. Hala ere, azterketa eremuan lurzati bat dago lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartuta. Inguruabar hori kontuan hartu da proiektuaren diseinuan eta ingurumen ebaluazioan Eraikuntza fasean, lurzoruaren gaineko eragin nagusiak lur mugimenduek, lubakiak irekitzeak, makineriaren joan-etorriek eta materialak pilatzeko eremuak eta makineria parkea ezartzeak eragiten dituzte. Jarduketa horiek lurraren alterazio fisikoak eragin ditzakete, hala nola trinkotzea, egitura galtzea eta porositatea murriztea, bai eta higadura prozesu puntualak ere aldi baterako hartutako eremuetan. Era berean, lurzorua kutsatzeko arrisku potentziala dago, makineriatik datozen erregaien, olioen edo bestelako fluidoen ustekabeko isurketen ondorioz. Eragin horiek minimizatzeko, landare lurra behar bezala kudeatuko da, eta pilatu egingo da, ondoren leheneratze lanetan berrerabiltzeko. Era berean, aurreikusitako prebentzio eta zuzenketa neurriak aplikatuko dira. Ondorioz, obren fasean lurzoruaren gaineko inpaktua moderatutzat jotzen da. Jarduketak amaitu eta eragindako azalerak leheneratu ondoren, berriz, ustiapen faseko inpaktua bateragarritzat jotzen da, ez baita aurreikusten ingurumen faktore horretan eragin gehigarririk izatea

ERAGINDAKO INGURUKO EREMUA / ELEMENTUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Zadorra ibaia KBEa	Natura 2000 Sareko espazio horrek balio ekologiko handiko eremuak kontserbatzen ditu. Horien artean, Batasunaren intereseko 91E0* habitata (*Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialak) eta 92A0 habitata (*Salix alba* eta *Populus alba* espezieen galeria basoak) nabarmentzen dira, besteak beste. KBEak intereseko arrain komunitate bat ere badu, Habitaten Zuzentarauaren II. eranskinean jasotako espezieekin, hala nola errutilo hegalgorria eta loina. Horiez gain, mehatxatutako hainbat naiade espezie ere badaude, eta horien artean *Potomida littoralis*, *Unio elongatulus* eta *Anodonta anatina* nabarmentzen dira. Kontserbaziorako interes handieneko ugaztunen artean, bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta igaraba (*Lutra lutra*) nabarmentzen dira. Biak desagertzeko arriskuan dauden espezie gisa katalogatuta daude EAEko espezie mehatxatuen katalogoan, eta Habitaten Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan jasota daude. Gainera, bisoi europarra lehentasunezko espeziea da. Hegazti komunitatean ere nabarmentzen dira martin arrantzalea, ur zozoa (*Cinclus cinclus*) eta uhalde enara (*Riparia riparia*) Proiektuaren ondoriozko eraginak kolektorearen azken zatian, jaitsiera mailakatuan, harea kentzeko eta hidrokarburoak bereizteko instalazioetan, Santa Engrazia ibaira isurtzeko kanalean eta azpiegitura horiei lotutako sarbide eta mantentze lanetarako bidean biltzen dira nagusiki. Elementu horiek guztiak edo batzuk ES2110010 "Zadorra ibaia" KBEaren babes eremu periferikoaren barruan daude. Gainera, sarbidearen zati handi batek 10 urteko errepikatze denborari (T=10) lotutako uholde arriskuko eremuetan dauden lurrak hartzen ditu, eta, tarte jakin batzuetan, 100 urteko (T=100) eta 500 urteko (T=500) errepikatze denborei lotutakoak ere bai. Inguruabar horrek areagotu egiten du eragindako eremuaren ingurumen eta hidraulika arloko sentikortasuna Inpaktu potentzialak eraikuntza fasearekin lotuta daude nagusiki, eta lur mugimenduek, lurrak aldi baterako eta modu iraunkorrean hartzeak, ibaiertzeko landaredia toki jakin batzuetan kentzeak, solido esekien kopurua une jakin batzuetan handitzeak, ustekabeko isurketen arriskuak eta makineria ibai ingurunean egoteak eta ibiltzeak Batasunaren intereseko habitatetan eta espezieetan eragindako eragozpenek sortzen dituzte. Eragin horiek bereziki garrantzitsuak dira sarbidearen kasuan, trazadura lineala duelako eta Santa Engrazia ibaiari lotutako ibaiertzeko habitatetatik hurbil dagoelako Hala ere, jarduketa gehienak Goiain industrialdeko lehendik urbanizatutako lurretan egingo dira, eta ingurune naturalean zuzenean hartuko den azalera nahiko txikia izango da. Era berean, ingurumen izapidetzean, sustatzaileak adierazi du prest dagoela sarbidearen behin betiko trazadura egokitzeko, obren zuinketa eta gauzatze fasean, teknikoki posible den neurrian lehendik dagoen ezpondaren beheko ertzetik ahalik eta hurbilen igaro dadin. Horrela, ibaiertzeko habitatetan, KBEaren babes eremu periferikoan eta eragindako uholde arriskuko eremuetan hartuko den azalera minimizatuko da. Era berean, bidearen zabalera proiektatutako instalazioen ikuskapen eta mantentze lanak bermatzeko behar den gutxienekora mugatu beharko da Ondorioz, aurreikusitako prebentzio, zuzenketa eta leheneratze neurriak eta sarbidea egiteko ezarritako baldintza espezifikoak aplikatzen badira, proiektuak ez duela ES2110010 "Zadorra ibaia" KBEaren osotasunean eragin nabarmenik izango uste da, eta ez duela arriskuan jarriko hura izendatzea eragin zuten habitatak eta espezieak kontserbazio egoera onean mantentzea edo egoera hori berrezartzea. Beraz, proiektua bateragarria da espazio babestuaren kontserbazio helburuekin. Gainera, ustiapen fasean, Goiain industrialdeko hondakin uren araztegiaren funtzionamendua hobetzeak onura ekologikoa ekarriko die ibaiari eta hari lotutako ekosistemei. Ildo horretan, proiektua beharrezkotzat jotzen da espazio babestuaren balioak kontserbatzeko
Landaredia eta habitatak	Jarduketa eremua Goiain industrialdeko lur urbanizatuetan dago gehienbat. Hala ere, kolektorearen azken zatia, jaitsiera, euri urak tratatzeko sistema eta Santa Engrazia ibaira isurtzeko kanala ingurune natural batean daude, eta eragin puntuala dute *Populus sp* espezieko landaketetan eta Habitaten Zuzentarauaren I. eranskinean jasotako Batasunaren intereseko lehentasunezko 91E0 "*Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialak" habitataren 232,97 m²-ko azaleran. Ibaiertzeko landarediari lotutako habitat horrek kontserbazio egoera txarra du eskala biogeografikoan, baina proiektuak eragindako azalera oso txikia da Euskal Autonomia Erkidegoan habitat horrek duen hedadurarekin alderatuta. Landarediari dagokionez, kontuan hartu beharreko ingurumen balioak baditu ere, eremuak eragin ugari jasan ditu, neurri handi batean makal landaketen (*Populus sp.*) ondorioz Eraikuntza fasean, eragin nagusiak lurra toki jakin batzuetan hartzeak, landaredia eremu jakin batzuetan kentzeak eta ibai ingurunean ura husteko azpiegiturak egiteak eragingo dituzte. Jarduketa horiek zuzenean eragin diezaiokete aipatutako Batasunaren intereseko habitatari. Hala ere, eragina azalera txiki batera mugatzen da, eta minimizatu egingo da eremu sentikorrak balizatuz, lan eremuak mugatuz eta aurreikusitako prebentzio, zuzenketa eta leheneratze neurriak aplikatuz, eraldatutako azalerak ingurumenaren aldetik leheneratzea barne. Ondorioz, habitaten eta landarediaren gaineko inpaktua moderatutzat jotzen da hasieran, baina, neurri horiek aplikatu ondoren, inpaktuaren magnitudea bateragarritzat jotzen da. Ustiapen fasean ez da aurreikusten landaredi naturalean edo Batasunaren intereseko habitatetan eragin negatibo gehigarririk izatea
Flora	Ez da aipatu Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan jasota dagoen espezierik proiektuaren eremuaren barruan. Beraz, ez da ildo horretako eraginik espero

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ERAGINDAKO INGURUKO EREMUA / ELEMENTUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Fauna	Jarduketa eremua finkatutako industria ingurune batean dago; hala ere, haren azken zatia Santa Engrazia ibaiarekin lotzen da, ES2110010 "Zadorra ibaia" KBEaren barruan dagoen ibaiarekin, eta horrek fauna aldetik sentikortasun handia ematen dio sektore horri. Proiektua kokatzen den 10 × 10 km-ko UTM laukian, Batasunaren intereseko espezie ugari egon daitezkeela identifikatu da, Hegaztien Zuzentarauaren I. eranskinean eta Habitaten Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan jasotakoak. Era berean, EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan desagertzeko arriskuan edo kaltebera gisa katalogatutako hainbat espezie ere egon daitezke. Horien artean, ibai ingurunearekin duten lotura estuagatik, bisoi europarra (*Mustela lutreola*), igaraba (*Lutra lutra*) eta uhalde enara (R*iparia riparia*) nabarmentzen dira. Espezie horien interes bereziko eremuak Santa Engrazia ibaiaren inguruan daude, Arabako Foru Aldundiak onartutako espezie bakoitzaren kudeaketa planen arabera Faunaren gaineko eragin nagusiak obren fasean gertatuko dira, bereziki kolektorearen azken zatian, jaitsieran, harea kentzeko eta hidrokarburoak bereizteko gailuetan, isurketa kanalean eta instalazio horiei lotutako sarbide eta mantentze lanetarako bidean. Lur mugimenduek, makineriaren presentziak, landaredia toki jakin batzuetan kentzeak eta giza jarduera aldi baterako areagotzeak eragozpenak, habitaten aldi baterako galera eta faunaren joan-etorrietan aldaketak eragin ditzakete, baita aleak harrapatuta geratzeko edo ibilgailuek harrapatzeko arriskua ere. Eragin horiek bereziki sentikorrak dira, bisoi europarraren eta igarabaren interes bereziko eremuak hurbil daudelako eta jarduketen zati bat Zadorra ibaia KBEaren babes eremu periferikoaren barruan kokatzen delako Gainera, adierazi behar da sarbide eta mantentze lanetarako bidea dela ibai ekosistemari lotutako faunaren gainean eragin handiena izan dezakeen elementuetako bat, haren trazaduraren zati bat KBEaren babes eremu periferikotik eta hainbat errepikatze denborari lotutako uholde arriskuko eremuetan dauden lurretatik igarotzen baita. Hala ere, ingurumen izapidetzean, sustatzaileak adierazi du prest dagoela obren zuinketan bidearen behin betiko trazadura egokitzeko, teknikoki posible den neurrian lehendik dagoen ezpondaren beheko ertzetik ahalik eta hurbilen igaro dadin. Horrela, ibaiertzeko basoan beharrezkoak ez diren lurrak hartzea saihestuko da, eta kontserbatu beharreko espezieek erabiltzen dituzten habitaten gaineko eragina ahalik eta gehien murriztuko da. Era berean, bidearen zabalera ustiapen eta mantentze lanetarako behar-beharrezkoa den gutxienekora mugatu beharko da Eragin horiek minimizatzeko, Santa Engrazia ibaiaren ingurune naturalean eragina duten jarduketak bisoi europarraren ugalketarako aldi kritikotik kanpo egingo dira, teknikoki bideragarria den guztietan. Aldi hori martxoaren 15etik uztailaren 31ra bitartekoa da, eta, tarte horretan, jarduketak industrialdeko erabat urbanizatutako eremuetara mugatuko dira. Era berean, obrak hasi aurretik, natura ondarearen arloko organo eskudunaren baimena lortu beharko da, dagozkion kudeaketa planek hala ezartzen dutenean; obra eremuak balizen bidez mugatuko dira, ibaiertzeko landaredian beharrezkoak ez diren eraginak saihesteko; lubakietan arrapalak edo ihes egiteko sistemak jarriko dira, fauna harrapatuta gera ez dadin; eta makineriaren zirkulazioa eta materialak pilatzea behar-beharrezkoa den eremura mugatuko dira Ustiapen fasean, harea kentzeko eta hidrokarburoak bereizteko gailuen mantentze lanekin eta sarbidetik noizean behin igarotzearekin lotutako eragozpen puntualak baino ez dira aurreikusten, eta ez da espero bertako fauna populazioetan aldaketa esanguratsurik izatea. Oro har, faunaren gaineko inpaktua moderatutzat jotzen da eraikuntza fasean, ingurunearen sentikortasun ekologiko handia dela eta. Hala ere, eragindako azalera txikia dela, jarduketak aldi baterakoak direla, bidearen trazadura ezpondaren ertzera egokituko dela eta aurreikusitako prebentzio eta zuzenketa neurriak aplikatuko direla kontuan hartuta, hondar inpaktua bateragarritzat jotzen da, eta ustiapen fasean ez da eragin esanguratsurik aurreikusten. Ustiapen fasean, eragina onuragarria izango da
Igarobide ekologikoak	Azterketa eremua Euskadiko igarobide ekologikoen sareko gune nagusi batean dago, "Zadorra ibaia" izenekoan Kolektorearen azken zatia egiteak toki jakin batzuetara mugatutako inpaktuak eragin ditzake. Oro har, intentsitate txikikoak eta aldi baterakoak izango dira, eta, nagusiki, obren fasean igarobidearen funtzionaltasuna une jakin batzuetan aldatuko dute. Eragin potentzialen artean, aipatzekoak dira zangen trazadurak landare estalkian izan dezakeen eragin zuzena tokiko eskalan eta fauna tokian-tokian lekualdatzeko arazoak, baina guztiak ere oso noizbehinkakoak dira. Eragindako espezieen aldi kritikoak errespetatu beharko dira
Paisaia	Jarduketa eremua Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Paisaien Katalogoan definitutako "08-Urrunaga eta Uribarri Ganboa" paisaia unitatean dago. Unitate horren ezaugarria erliebe leunki uhindua da, eta bertan Urrunagako eta Ullíbarri-Gamboako urtegiak, nekazaritza eta abeltzaintzako eremuak, baso masak eta herrigune txikiak tartekatzen dira. Hala ere, jarduketa Goiain industrialdearen barruan egingo da gehienbat. Ingurune hori oso eraldatuta dago giza jardueraren ondorioz, eta bide azpiegiturak eta industria eraikinak dira nagusi; horrenbestez, jarduketa eremuaren paisaia kalitatea eta hauskortasuna txikiak dira. Kolektorearen azken zatia baino ez da kokatzen ingurune natural batean. Zati horrek jaitsiera, harea kentzeko eta hidrokarburoak bereizteko gailuak eta Santa Engrazia ibaira isurtzeko kanala hartzen ditu, eta zati batean bat dator Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialak mugatutako "Arabako Lautadako muinoak" paisaia interes bereziko eremuarekin (AEIP). Guztira, 234,54 m² ingururi eragiten die Eraikuntza fasean, paisaiaren gaineko eragin nagusiak lur mugimenduekin, lubakiak irekitzearekin eta makineria, material pilaketak eta obretako elementu osagarriak aldi baterako egotearekin lotuta egongo dira, bereziki Santa Engrazia ibaiarekin lotzen den eremuan. Aldi baterako inpaktua da, toki jakin batzuetara mugatua, eta haren eragina jarduketaren azken zatian pilatzen da nagusiki Ustiapen fasean, proiektatutako azpiegitura gehienak lurpean egongo dira; beraz, ez dute aldaketa nabarmenik eragingo paisaiaren pertzepzioan. Euri urak tratatzeko eta isurtzeko sistemari lotutako elementuak baino ez dira ikusgai egongo. Elementu horien diseinua ingurunean integratu beharko da, ikusizko eragin txikiko eraikuntza irtenbideen bidez, ingurunearekin bat datozen materialak eta akaberak erabiliz, eragindako azalerak lehengoratuz eta eraldatutako eremuetan bertako espezieekin landaredia berrezarriz. Horrenbestez, paisaiaren gaineko inpaktua moderatutzat jotzen da obren fasean, eta bateragarritzat ustiapen fasean, aurreikusitako prebentzio neurriak eta paisaian integratzeko neurriak aplikatu ondoren
Kultura ondarea	Ez da balio historiko eta kulturalagatik babestutako elementurik edo higiezinik aurkitu proiektuak eragindako eremuan

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ERAGINDAKO INGURUKO EREMUA / ELEMENTUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Giza habitata	Proiektua osorik garatuko da Goiain industrialdean, Legutioko udalerrian, eta ez dio zuzenean eragingo inolako herriguneri, nahiz eta inguruan hainbat kontzeju eta bizitegi eremu egon. Jarduketa lehendik dauden bide eta azpiegituretan egingo da, industria ingurune batean. Bertan, biztanle gutxi daude, eta ohiko jarduera industrialdeko enpresa erabilerari lotuta dago Eraikuntza fasean, biztanleriaren eta giza osasunaren gaineko inpaktu nagusiak honako hauekin lotuta egongo dira: zarata mailak aldi baterako handitzearekin; lur mugimenduek eta makineriaren joan-etorriek eragindako hauts eta partikulen emisioarekin; eta lubakiak irekitzeak eta bide publikoa aldi baterako hartzeak industrialdeko trafikoan eta barne mugikortasunean eragin ditzaketen eragozpen puntualekin. Eragozpen horiek toki jakin batzuetara mugatuak, aldi baterakoak eta itzulgarriak izango dira, eta prebentzio neurriak aplikatuz minimizatuko dira. Neurri horien artean daude aldizkako ureztatzeen bidez hauts emisioak kontrolatzea, makineria behar bezala mantentzea, lanak eguneko ordutegira mugatzea eta obrak egin bitartean trafikoa behar bezala seinaleztatzea eta kudeatzea Ustiapen fasean ez da biztanleriaren edo giza osasunaren gaineko eragin nabarmenik aurreikusten, kolektoreak modu pasiboan funtzionatuko baitu eta lurpean egongo baita. Trafikoa une jakin batzuetan baino ez da handituko, eta igoera txikia izango da, harea kentzeko eta hidrokarburoak bereizteko gailuen aldizkako ikuskapen eta mantentze lanen ondorioz. Horrenbestez, biztanleriaren eta giza osasunaren gaineko inpaktua moderatutzat jotzen da eraikuntza fasean, eta garrantzi txikikotzat edo bateragarritzat ustiapen fasean
Klima aldaketa	Jarduketen aurreko eta eraikuntzako faseetan, klima sistemaren gaineko eraginak eta horien ondorioak ez dira antzemango. Proiektatutako lanen garrantziak eta irismenak baztertu egiten dute klima aldagaietan edo berotegi efektuko gasen isurketen balantzean (BEG) eragin esanguratsurik izatea Ustiapen fasean, inpaktua ez adierazgarritzat (edo inpakturik gabekotzat) jotzen da. Azpiegituraren neurriak txikiak direnez, haren funtzionamenduak ez ditu inguruneko baldintzak aldatuko, eta jarduketaren aurreko edo hasierako egoeraren antzeko egoera izango da gerora ere
Arriskuak	Azterketan kontuan hartzen dira jarduketa eremuan egon daitezkeen arrisku naturalak zein jatorri antropikokoak. Arrisku naturalei dagokienez, muturreko fenomeno meteorologikoak (muturreko tenperaturak, euri jasa handiak, elurteak eta haize bortitzak), baso suteak, lur mugimenduak, jarduera sismikoa, uholdeak, lehorteak eta presekin eta urtegiekiko lotutako gorabehera posibleak ebaluatzen dira. Era berean, lotutako arrisku teknologikoak aztertzen dira, batez ere salgai arriskutsuen garraiotik eta obrak gauzatzean gerta daitezkeen istripuetatik eratorritakoak. Ebaluazioa matrize baten bidez egiten da. Matrize horrek agertoki bakoitza gertatzeko probabilitatea eta proiektuaren berariazko kalteberatasuna konbinatzen ditu, eta, horrela, ondoriozko arriskuaren sailkapena lortzen da Lortutako emaitzek adierazten dute aztertutako agertoki guztietan jarduketaren kalteberatasuna txikia edo ertaina dela, eta arrisku mailak ez-esanguratsutzat edo bateragarritzat jotzen direla. Horrenbestez, ez da identifikatu proiektuaren bideragarritasuna nabarmen arriskuan jar dezakeen edo istripu larrien nahiz hondamendi naturalen ondorioz ingurumen eragin handiak sor ditzakeen arriskurik. Hori dela eta, ondorioztatzen da proiektuak kalteberatasun txikia duela mota horretako gertaeren aurrean, eta jarduketa gauzatzeko eta ustiatzeko aurreikusitako prebentzio neurriak eta jardunbide egokiak nahikoak direla; beraz, ez da beharrezkotzat jotzen berariazko neurri gehigarririk ezartzea

«Goiain industrialdeko (Araba) San Bartolome eta Zabaldea kaleetako euri-uren kolektorea eraikitzeko proiektuan» aurreikusitako jarduketak gauzatzeak, oro har, inpaktu moderatu-bateragarriak eragingo ditu ingurumenean, jarduketak gehienbat lehendik urbanizatutako industria ingurune batean egingo baitira. Hala ere, kolektorearen azken zatia, tratamendu eta isurketa instalazioak eta sarbide eta mantentze lanetarako bidea egitearekin lotutako eragin jakin batzuk ingurumen sentikortasun handiko eremu batean gertatuko dira. Eremu horrek bat egiten du ES2110010 «Zadorra ibaia» KBEaren babes eremu periferikoarekin, ibai ekosistemari lotutako fauna espezie mehatxatu batzuen interes bereziko eremuekin eta Santa Engrazia ibaiari lotutako uholde arriskuko eremuetan sartutako zenbait sektorerekin. Inguruabar horien ondorioz, eraikuntza fasean neurrizko inpaktu potentzialak egon daitezke, batez ere lurrak aldi baterako hartzearekin, lur mugimenduekin, ibaiertzeko landarediaren gaineko eragin puntualekin, faunari eragindako eragozpenekin eta inguruneko dinamika hidrologikoan eta hidraulikoan gerta daitezkeen aldi baterako aldaketekin lotuta.

Hala ere, uste da eragin horiek murriztu ahal izango direla ingurumen dokumentuan eta ingurumen inpaktuaren txosten honetan aurreikusitako prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurriak behar bezala aplikatuz. Ildo horretan, ontzat jotzen da kolektorearen trazadurarako egindako aukeren azterketa, ingurune naturalean ahalik eta azalera txikiena hartzen duen eta kontserbatu beharreko balioetan ahalik eta eragin txikiena duen irtenbidea hautatzeko aukera eman duelako. Era berean, sarbide eta mantentze lanetarako bideari dagokionez, sustatzaileak ingurumen izapidetzean adierazi du prest dagoela obren zuinketan eta gauzatzean bidearen behin betiko trazadura egokitzeko, teknikoki ahalik eta gehien hurbil dadin lehendik dagoen

ezpondaren beheko ertzera eta mantentze lanen beharretara egokitzen den gutxieneko zabalera izan dezan. Horrela, habitat naturalek, KBEaren babes eremu periferikoak eta uholde arriskuak eragindako eremuek hartutako azalera murriztuko da. Proiektuaren aldaketa hori funtsezkotzat jotzen da ingurumen sentikortasun handieneko eremuan eraginak minimizatzeko.

Era berean, ustiapen fasean, jarduketak ingurumen eragin positiboa izango du oro har, euri urak lehendik dagoen sare bateratutik bereiztea ahalbidetuko baitu. Horrela, Goiain industrialdeko araztegiak gaur egun jasaten duen karga hidraulikoa murriztuko da, eta jariatze uren kudeaketa eraginkorragoa sustatuko da, Santa Engrazia ibaira isuri aurretik ur horiek tratatuz. Horrenbestez, eta txosten honetan ezarritako baldintzak eta neurriak betetzen badira, ez da aurreikusten ES2110010 «Zadorra ibaia» KBEaren osotasunean edo jarduketa eremuan dauden natura balioen kontserbazio helburuetan eragin nabarmenik sortuko denik. Hori guztia baldintzatuta dago sustatzaileak ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduran deskribatutako jarduketak eta ingurumen txosten honetan ezarritako zehaztapenak zorrotz betetzera.

Horrenbestez, txosten honetan adierazitako guztia kontuan hartuta eta egindako ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuarekin bat etorriz, ez da aurreikusten «Goiain industrialdeko (Araba) San Bartolome eta Zabaldea kaleetako euri-uren kolektorea eraikitzeko proiektuak» ingurumenean eragin esanguratsurik izango duenik. Beraz, ez da beharrezkotzat jotzen 21/2013 Legearen II. tituluko II. kapituluaren 1. atalean aurreikusitako ingurumen inpaktuaren ebaluazio arrunta izapidetzea. Hala ere, nahitaez bete beharko dira ingurumen inpaktuaren txosten honetan eta proiektuaren ingurumen dokumentuan jasotako neurri babesle eta zuzentzaileak, eta behar bezala gauzatu beharko da ingurumen zaintzako programa.

Nolanahi ere, ondorio horrek ez du sustatzailea salbuesten legez eska daitezkeen ingurumen baimenak lortzeko betebeharretik.

4. Neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak

Ingurumen dokumentuaren 12. atalean proiektua ingurumenean integratzeko hainbat neurri jasotzen dira, prebentziozkoak, zuzentzaileak zein konpentsatzaileak. Oro har, egokitzat jotzen dira, eta, beraz, deskribatutako moduan aplikatu beharko dira. Hala ere, jarraian, deskribatutako eraginpeko eremuan ingurumenaren gaineko ondorio negatiboak saihesteko edota minimizatzeko gure ustez hartu beharreko neurri osagarriak jasotzen dira.

A) Proiektua gauzatzean, ebazpen honetan jasotako zehaztapenak bete beharko dira, baita, ebazpen honetan ezarritakoaren aurkakoak ez diren heinean, proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioa egiteko sail honi aurkeztutako dokumentazioan jasotakoak ere. Lanak egin bitartean proiektuan aldaketaren bat sortzen bada, eta aldaketa horrek proiektuaren ezaugarrietan edo jarduketetan aldaketa nabarmenak badakartza edo aurreikusitako ingurumen inpaktuak aldatzea eragiten badu, Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoari jakinarazi beharko zaio, eta organo horren baimena lortu beharko da aldaketa onartu aurretik.

B) Ingurumen inpaktuaren azterketaren 12. atalean azaldutako neurriak hartu beharko dira. Ingurumen inpaktuaren azterketako eta proiektuaren dokumentu teknikoko prebentziozko neurri, neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileak. Horretarako, sustatzaileak nahitaez gauzatu beharko ditu proiektuko jarduketak ingurumen inpaktuaren txosten honetan ezarritako ingurumen baldintzetara egokitzeko beharrezkoak diren lanak, «Goiain industrialdeko (Araba) San Bartolome eta Zabaldea kaleetako euri-uren kolektorea eraikitzeko proiektuaren» ingurumen inpaktuaren azterketan zehaztutakoez gain. Horren bidez, proiektatutako lanek eragindako azalera guztiak behar bezala eta erabat lehengoratu beharko dira, ikuspegi ekologikotik eta paisaiaren ikuspegitik.

C) Obrak hasi aurretik, sustatzaileak sarbide eta mantentze lanetarako bidearen behin betiko trazadura zehaztu eta ingurumenaren ikuspegitik justifikatu beharko du, lurrean egindako zuinketa kontuan hartuta. Bide horren trazadura lehendik dagoen ezpondaren beheko ertzera egokitu beharko da, ahal dela aurretik eraldatutako eremuak edo landaredi naturalik gabekoak aprobetxatuz eta ibaiertzeko basoaren barrutik igarotzea saihestuz, habitat naturalak eta ES2110010 «Zadorra ibaia» KBEaren babes eremu periferikoan dauden lurrak ahalik eta gutxien hartzeko.



Lehendik dagoen ezpondaren ertzera egokitutako bidearen trazadura (horiz)

Era berean, bidearen zabalera ikuskapen, mantentze lan eta larrialdietako ibilgailuak segurtasunez sartzeko ezinbestekoa den gutxienekora mugatuko da, eta debekatuta egongo da behar bezala justifikatu gabeko zabalgune gehigarriak, bazterbideak, biratzeko eremuak edo azalera osagarri iraunkorrak egitea. Bidearen diseinua eta gauzatzea lurraren topografia naturalera egokitu beharko dira, lur mugimenduak, lur erauzketak, lubetak eta betelanak ahalik eta gehien murriztuz, bereziki Santa Engrazia ibaiari lotutako uholde arriskuko eremuetan dauden tarteetan. Nolanahi ere, uholde lautadaren drainatze naturalerako eta ura biltegiratzeko ahalmena mantentzen dela bermatu beharko da, lehendik dagoen erregimen hidraulikoa nabarmen aldatu gabe. Obren fasean, makineria baimendutako trazaduran (bidea 2,5 m-ko zabalerarekin proiektatu da) eta aldez aurretik balizen bidez mugatutako ondoko azaleretan baino ezingo da ibili (gehienez 5,5 m-ko zabalerako zerrendan; horietatik 2,5 m behin betiko biderako izango dira, eta aldi baterako hartutako gainerako azalera ingurumenaren ikuspegitik lehengoratuko da). Debekatuta egongo da ibaiertzeko landaredia duten eremuetatik, Batasunaren intereseko habitatetatik edo baimendutako okupazioaren barruan ez dauden eremuetatik igarotzea. Azkenik, ustiapen fasean, bidearen eta harea kentzeko eta hidrokarburoak bereizteko instalazioen mantentze lanak azpiegituren funtzionamendua bermatzeko behar-beharrezkoak direnetara mugatuko dira, sarbideen maiztasuna eta ibai ekosistemari lotutako faunari eragin dakizkiokeen eragozpenak ahalik eta gehien murriztuz.

D) Sustatzaileak ingurumena eta paisaia lehengoratzeko proiektu bat aurkeztu beharko du, aurreikusitako prebentziozko neurri, neurri zuzentzaile eta konpentsatzaile guztien deskribapena, definizioa, kostua eta programazioa zehatz-mehatz jasoko dituena. Neurri horiek berariaz bideratu beharko dira jarduketak egingo diren kokalekuetan dauden ingurumen balioen gaineko eraginak minimizatzera eta arintzera, obrak amaitu ondoren eragindako eremuak behar bezala lehengoratuko direla eta haien funtzionaltasun ekologikoa berreskuratuko dela bermatzeko, bereziki kolektorearen azken zatian, Santa Engrazia ibaira isurtzen den eremuan. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak baliozkotu beharko du proiektu hori.

E) Obrak hasi aurretik, eta jarduketen zati batek Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua kutsa dezaketen edo kutsatu ahal izan duten jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako lurzati bati eragiten dionez, sustatzaileak lurzoruaren kalitatearen arloan eskumena duen ingurumen organoaren baimena edo aldeko irizpena lortu beharko du, hala badagokio. Era berean, lurzati horretan lur mugimenduak dakartzan edozein

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

jarduketa organo horrek ezarritako baldintzen arabera gauzatu beharko da, induskatutako materialak behar bezala kudeatzen eta karakterizatzen direla bermatuz eta giza osasunerako eta ingurumenerako arriskuak saihesteko beharrezko neurriak hartuz.

F) Obrak hasi aurretik, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuaren nahitaezko baimena lortu beharko da kolektorearen azken zatiari eta Santa Engrazia ibaira ura husteko azpiegiturei lotutako aldi baterako eta behin betiko okupazio eremuetan beharrezkoak diren zuhaitz mozketak, sastraka garbiketak eta inausketak egiteko, jarduketa horiek baso lurrei eragiten dietenean. Lanak 11/2007 Foru Arauak, martxoaren 26koak, Arabako Lurralde Historikoko Mendiei buruzkoak, xedatutakoaren arabera egin beharko dira.

G) Obrak hasi aurretik, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren, Jasangarritasunaren eta Ingurumenaren Saileko Natura Ondarearen Zerbitzuaren nahitaezko baimena lortu beharko da Santa Engrazia ibaiari lotutako bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) eta igaraba eurasiarraren (*Lutra lutra*) interes bereziko eremuetan lurrak behin betiko hartzeko eta jarduketak gauzatzeko, espezie horien kudeaketa planetan ezarritakoarekin bat etorriz. Era berean, jarduketak natura ondarea kontserbatzeko arloan eskumena duen organoak ezarritako baldintzetara egokitu beharko dira. Bereziki, kolektorearen azken zatiari, ura husteko azpiegiturei eta interes bereziko eremuei eragiten dieten lanak bisoi europarraren ugalketarako aldi kritikotik kanpo egin beharko dira, hau da, martxoaren 15etik uztailaren 31ra bitarteko alditik kanpo. Era berean, ugaltzen ari diren hegaztien gaineko eraginak minimizatzeko, jarduketa eremu osoan sastrakak garbitzeko, zuhaitzak mozteko eta landaredia kentzeko lanak martxoaren 15etik abuztuaren 20ra bitarteko alditik kanpo egin beharko dira. Azken data hori usapal europarraren (*Streptopelia turtur*) kudeaketa planean ezarritako aldi kritikoaren amaierarekin bat dator, Natura Ondarearen Zerbitzuak alegazioei buruzko txostenean adierazi duen bezala.

H) Obrak hasi aurretik, sustatzaileak beharrezkoak diren baimenak lortu beharko ditu Uraren Euskal Agentzian (URA), ibilguen zaintza eremuan eta uholde arriskuak eragindako eremuetan jarduketak egiteko. Horretarako, dokumentazio teknikoan proiektatutako jarduketen bateragarritasun hidraulikoaren justifikazioa jasoko da, eta egiaztatu beharko da ez dela aldaketa nabarmenik eragingo korronteen erregimenean, drainatze naturalerako ahalmenean edo Santa Engrazia ibaiari lotutako uholde arriskuko eremuen funtzionaltasun hidraulikoan.

Azaldu den bezala, sarbide eta mantentze lanetarako bidearen behin betiko trazadura lehendik dagoen ezpondaren beheko ertzera egokitu beharko da, lurraren topografia naturalera moldatuz eta ES2110010 «Zadorra ibaia» KBEaren babes eremu periferikoan, ibaiertzeko habitatetan eta uholde arriskuko eremuetan ahalik eta azalera txikiena hartuz. Era berean, bidearen zabalera proiektatutako instalazioen ikuskapen eta mantentze lanak bermatzeko behar den gutxienekora mugatu beharko da.

Uholde arriskuko eremuetan dauden tarteetan, saihestu egingo da lubetak, betelanak, plataforma goratuak eta materialak behin betiko pilatzeko eremuak egitea, baita uholde lautadaren ura biltegiratzeko ahalmena murriztu edo lehendik dauden baldintza hidraulikoak nabarmen alda ditzakeen beste edozein jarduketa egitea ere. Era berean, lur mugimenduak ahalik eta gehien murriztu beharko dira, eta bidea ingurumenean behar bezala integratzen dela bermatu beharko da, natura ingurunean eragin txikia duten eraikuntza irtenbideen bidez.

Lanak ingurumenaren eta hidrologiaren ikuspegitik sentikortasun txikieneko aldietan egiteko programatuko dira. Makineriaren zirkulazioa aldez aurretik mugatutako azaleretara mugatuko da, eta ibaiertzeko landaredian, habitat naturaletan eta ibai inguruneko eremu sentikorrenetan beharrezkoak ez diren eraginak saihestuko dira.

I) Obra kontratatzeko baldintza agirian, ingurumen inpaktuaren azterketari buruzko agirian zehaztutako lanak egiteari buruzko ingurumen preskripzio guztiak jaso beharko dira, bai eta ingurumen inpaktuari buruzko txosten honetan adierazitakoak ere, betiere ingurunea babesteko eta obraren ingurumen inpaktuak azaltzeko. Baldintza agiri horretan azpimarratu beharko da hondeaketa lanak zein materialak garraiatzeko lanak, ahal den guztietan, makineria arina erabiliz egingo direla, natura ingurunean eraginak sor ditzaketen faktoreak ahalik eta gehien murrizteko, bereziki kolektorearen azken zatiko landaredian, paisaian eta ingurune hibridoan.

J) Lanak hasi aurretik, sustatzaileak horren berri eman beharko dio Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, obren ingurumen jarraipen egokia egiteko eta ingurumen inpaktuaren txosten honetan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko.

K) Proiektua gauzatzeak eragingo dituen azaleren mugak zehatz-mehatz zehaztu eta seinaleztatu beharko dira, ingurumen balio handieneko eremuetan, hau da, KBEan eta haren babes eremu periferikoan, balizak eta dagozkion seinaleak jarriz. Mugak seinaleztatzeko lan horietan, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko obra zuzendaritzak, enpresa kontratistako obra buruak eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuko teknikari batek egon beharko dute.

L) Lanak hasi aurretik, landaredia naturalaren azaleren eta eragina jasan dezaketen Batasunaren intereseko habitaten mugaketa zehatza egin beharko da, landa lan eguneratuetan eta landarediaren kartografia zehatzean oinarrituta, aurreikusitako okupazioa ahalik eta gehien doitzeko eta jarduketa eremuan dauden formazio naturalen gaineko eraginak minimizatzeko.

Egikaritze fasean beharrezkoak diren neurriak hartuko dira obra eremuen ondoko landaredian beharrezkoak ez diren afekzioak saihesteko, besteak beste, zuhaitz eta zuhaixka ale garrantzitsuak babestea, kontserbatutako landarediaren gaineko ustekabeko kalteak kontrolatzea eta tratatzea, eta espezie exotiko inbaditzaileak sar edo heda daitezen prebenitzea, lurrak, makinak eta materialak behar bezala kudeatuz.

Arreta berezia jarri beharko zaio zebra muskuiluari (*Dreissena polymorpha*); horri dagokionez, arlo hidraulikoan eskumena duen organo sektorialak ibilguetako obretan prebentziorako ezarritako neurriak bete beharko dira.

Eragindako landare formazioen lehengoratzeak bermatu beharko du, gutxienez, jarduketa eremuan funtzionaltasun ekologikoaren galera garbirik ez egotea, bereziki Santa Engrazia ibaiaren ibai-korridoreari eta ES2110010 «Zadorra ibaia» KBEaren babes eremu periferikoari lotutako eremuetan. Horretarako, eta Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketara Egokitzearen Zuzendaritzak jakinarazitakoarekin bat etorriz, proiektua gauzatzearen ondoriozko aldi baterako eta behin betiko okupazioengatik kendutako landarediaren azalera konpentsatu beharko da, lehengoratze ekologikoko jarduketen bidez edo azalera baliokide berriak sortuz. Eragindako azaleraren eta lehengoratutako azaleraren arteko gutxieneko konpentsazio proportzioa 1:2 izango da. Landaredi naturaleko 857 m^2-ko azalera bati eragingo zaiola kalkulatuta, gutxienez 1.714 m^2 lehengoratu beharko dira. Neurketa hori obren amaierako jarraipenean zehaztuko da.

Ingurumena eta paisaia lehengoratzeko proiektuak berariaz zehaztu beharko du sustatzaileak lehengoratze eta konpentsazio jarduketa horiek egiteko proposatzen duen eremu zehatza, haren egokitasun ekologikoa justifikatuz eta proiektuaren aurrekontuan dagokion balorazio ekonomikoa jasoz. Ahal dela, lehengoratzea eta, hala badagokio, ingurumen konpentsazioa KBE berean edo haren babes eremu periferikoan egingo dira.

Basoak eta ibaiertzak lehengoratzeko, eremuko landaredi potentzialari dagozkion espezieak erabiliko dira, Santa Engrazia ibaiko ekosistemari lotutako landare formazioak lehengoratzeari lehentasuna emanez eta ibai-korridorearen konektibitate ekologikoa hobetzea sustatuz.

Era berean, lehengoratze jarduketek honako hauek hartu beharko dituzte barne: eraldatutako lurzoruen trinkotzea kentzea eta lurzoru horiek egokitzea, aurretik kendutako landare lurra berriro jartzea, aldi baterako okupatutako azalerak berehala landareztatzea eta lehengoratzearen arrakasta arriskuan jar dezaketen espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzea.

Ingurumen organo honek baliozkotu beharko ditu ereiteen eta landaketen behin betiko ezaugarriak, bai eta lehengoratze jarduketen kokapena, azalera, espezie osaera eta gauzatzeko kronograma ere, proiektua behin betiko onartu aurretik.

Azkenik, lehengoratze jarduketen berme eta mantentze aldia gutxienez hiru urtera luzatuko da. Epe horretan, landareztatzearen arrakasta ziurtatzeko beharrezko lan guztiak egingo dira, hala nola hutsarteak betetzea, espezie inbaditzaileak kontrolatzea, beharrezkoak diren laguntzako ureztatzeak egitea, ustekabeko kalteetatik babestea eta lehengoratutako landare estalkiaren bilakaeraren aldizkako jarraipena egitea. Jarduketa horiek guztiak berariaz jaso beharko dira proiektuaren aurrekontuan eta ingurumen zaintzako programan.

M) Santa Engrazia ibaiaren inguruko landaredi naturalean eta habitatetan eraginak ahalik eta gehien murrizteko, kolektorea eraikitzeko lanekin lotutako aldi baterako okupazio eremuaren zabalera obrak behar bezala egiteko eta eskatutako segurtasun baldintzak bermatzeko ezinbestekoa den gutxienekora mugatuko da. Saihestu egin beharko da lan eremu berriak, beharrezkoak ez diren zabalgune gehigarriak edo teknikoki justifikatu gabeko eremu osagarriak irekitzea, jarduketak eragindako azalera ahalik eta gehien murrizteko.

Ibaiertzeko landarediatik, Batasunaren intereseko habitatetatik eta ES2110010 «Zadorra ibaia» KBEaren babes eremu periferikoan dauden lurretatik hurbil dauden tarteetan, lan eremua lurrean aldez aurretik egindako zuinketaren bidez egokitu beharko da, eta baimendutako okupazioaren mugak eta ingurumen arrazoiengatik baztertutako eremuak berariaz balizatu beharko dira.

Era berean, hondeaketa lanak, materialen mugimenduak eta kolektorea eraikitzeko lanak, teknikoki bideragarria den guztietan, tamaina txikiko eta ingurumen eragin txikiko makineria erabiliz egingo dira, lurraren ezaugarrietara eta ingurunearen ingurumen sentikortasunera egokituta, lurzoruaren trinkotzea, lehendik dagoen landarediaren aldaketa, ibaiertzeko landarediaren sustrai sistemetan eragindako kalteak eta jarduketa eremuko faunari eragindako eragozpenak ahalik eta gehien murrizteko.

Makineriaren zirkulazioa eta materialen pilaketa aldez aurretik mugatutako azaleretara mugatuko dira, eta berariaz debekatuta egongo da obrek eragiten ez dieten landaredi naturaleko eremuak okupatzea, baita baimendutako lan korridoreetatik kanpo beharrezkoak ez diren joan-etorriak egitea ere. Lanak amaitu ondoren, aldi baterako okupatutako azalera guztiak lehengoratu eta landareztatu beharko dira, ahal den neurrian, lehendik zeuden baldintzak berrezarriz.

N) Landare lurrari dagozkion lurzoru horizonteak bereizita kenduko dira. Ahal dela, berehala zabalduko dira berriro, eta, hori ezinezkoa bada, pilatu egingo dira Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoak baimendu beharreko lur batean. Gehienez, 3 metroko garaierako sekzio trapezoidaleko masetan pilatu behar da, trinkotzea saihesteko. Landare lur hori, lanek eragindako eta txosten honetako goragoko paragrafoetan deskribatutako gainazaletan landaredia eta lurzorua lehengoratzeko lanetarako erabiliko da.

O) Eraikuntza eta eraispen hondakinak 7/2022 Legean, apirilaren 8koan, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoan, eta 112/2012 Dekretuan, ekainaren 26koan, eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituenean, ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

Kutsatu gabeko lurzoruak eta hondeatutako beste material natural batzuk diren hondakin ez-arriskutsuei dagokienez, urriaren 10eko APM/1007/2017 Aginduan adierazitakoa bete beharko da. Agindu hori hondeatutako material naturalak betelanetan eta sortu ziren obretatik kanpo erabiltzeko balorizazio arau orokorrei buruzkoa da. Hondakinen tipologia horri dagokionez, soberako lur eta harri garbiak maileguak behar dituzten beste proiektu batzuetan berrerabiltzea lehenetsi beharko da, 2030eko Euskadiko hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko planean hondakin tipologia horretarako ezarritako helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko (ehuneko 75eko berrerabilera).

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

P) Nahitaez bete beharko dira ibilguak babesteko eta Santa Engrazia ibaiaren inguruan obrek eragindako ibaiertzetako landaredia lehengoratzeko neurriak. Neurri hauek hartu beharko dira berariaz zona horietan:

— Ibilguen ertzetan egin beharreko lanak hauskortasun handieneko aldietatik kanpo egingo dira, hau da, agorraldietan.

— Ur ibilguen inguruan ez da kutsadura sor dezakeen instalazio osagarririk kokatuko (hondakinak biltzeko zonak, makinak, bilketa zonak, etab.).

— Kolektorea eta haren elementu osagarriak ibilgutik hurbil dauden eremuetan (8 metro baino gutxiagora) hondeatzeko lanetan, maldak ehuneko 80tik gorakoak direnean edo landare formazio naturalen gainean luiziak gertatzeko arriskua dagoenean, sedimentuak ibilgura iristea eragozteko babes hesiak jarriko dira.

— Dekantazio putzuak jarriko dira, lurra mugitu den eremuetatik igarotzen diren jariatze urak biltzeko, ibai ingurunera solido esekiak iristea saihestu eta murrizteko.

— Uhertasunaren aurkako hesiak eta sedimentuak atxikitzeko gailuak jarriko dira, Santa Engrazia ibairantz jariatze barreiatua gertatzeko arriskua arintzeko, eta hondeaketetako soberakinak hondakin ez-arriskutsuetarako zabortegi baimendu batera eramango dira.

— Hondeaketetako materialak pilatzeko eremuak behar izanez gero, jabari publiko hidraulikoko eremuetatik kanpo kokatuko dira, ingurumen organoaren aldez aurreko baimena lortu ondoren.

— Erreken ertzak babesteko eta ezpondak egonkortzeko egiturak (harri lubetak eta abar) ingurunean integratuko dira, hutsuneak landare lurrarekin betetzea aurreikusita. Era berean, bertako edo basati bihurtutako zuhaitz, zuhaixka eta belar landaredia ere ezarri beharko da, landaketak eta aldaxkak landatzeko teknikak erabiliz.

— Debekatuta dago makinak eta kamioiak ibilguetatik igarotzea.

— Lanak hasi aurretik, gutxienez 180 cm-ko altuera duen metalezko hesi zurrun eta opaku bat jarriko da lurrean, lan eremua ibaiaren zortasun eremutik bereizteko. Hesia egoera onean mantendu beharko da lanak amaitu arte.

— Ibilgutik oso hurbil egitea aurreikusten den lurrezko kanalean, aldaxkak landatu, adar sortak jarri eta eragindako ibaiertzeko bertako espezieak landatuko dira (sahatsak, haltzak, lizarrak, astigarrak eta abar).

— Hormigoi aurrefabrikatuzko edota hormigoiz finkatutako harri lubetazko jaitsiera mailakatua ordezteko aukera aztertuko da, bioingeniaritzako teknikak edo teknika mistoak aplikatuz ingurunean integratutako irtenbideak ezartzeko. Jaitsieraren irtenbide teknikoa ingurumena lehengoratzeko proiektuan jasoko da, eta ingurumen organo honek baliozkotu beharko du, lehengoratze proiektu osoarekin batera.

Q) Lanak amaitu ondoren, garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eraginpean dagoen arean ez da inolako obra hondakinik geratuko, eta instalazioak erabat deseginda geratuko dira.

5. Zaintza eta jarraipena

21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, 52. artikuluan adierazten duen bezala, organo substantiboari dagokio ingurumen inpaktuaren txostena betetzen dela zaintzea. Ingurumen organoak egiaztapenak egin eta informazioa bildu ahalko du ingurumen inpaktuaren txostenean ageri diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Nolanahi ere, "ingurumen zaintzako planari" buruzko ingurumen dokumentuaren 13. atalean adierazten den bezala, ingurumen jarraipena egingo da, sustatzailearen eta Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren artean koordinatuta. Jarraipen hori lanak gauzatzeko fasean egingo da, aplikatutako neurri zuzentzaile, babesle eta konpentsatzaileen eraginkortasuna ezagutzeko eta ebaluatzeko, eta antzeman daitezkeen gabeziak zuzentzeko.

Proiektua behin betiko onartu aurretik, sustatzaileak (Arabako Garapen Agentzia SA) honako dokumentazio hau bidali beharko du, ingurumen ondorioetarako soilik txostena egin dadin:

— Behin betiko proiektua, ingurumen inpaktuaren txosten honetan ezarritako neurriak ezartzearen ondoriozko aldaketak jasotzen dituena.

— Ingurumena eta paisaia lehengoratzeko proiektua, aurreikusitako prebentziozko neurri, neurri zuzentzaile eta konpentsatzaile guztien deskribapena, definizioa, kostua eta programazioa zehatz-mehatz jasotzen dituena.

Lanak egiten diren bitartean:

— 13. atalean ezarritakoari jarraikiz egiten diren ingurumen jarraipeneko txostenak ingurumen-organo honi igortzea. Sustatzaileak ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedurarako aurkeztu duen ingurumen dokumentuko ingurumen zaintzako plana.

Horrenbestez, 10/2023 Foru Arauak, martxoaren 15ekoak, Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 24. eta 64. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, bai eta 17/2016 Foru Dekretuak, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9koak, Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenak, eta hura aldatzen duen 48/2017 Foru Dekretuak, Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3koak, xedatutakoarekin bat etorriz ere, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. «Goiain industrialdeko (Araba) San Bartolome eta Zabaldea kaleetako euriuren kolektorea eraikitzeko proiektuaren» ingurumen inpaktuaren txostena egitea.

Bigarrena. Ingurumen inpaktuaren txostena nahitaezkoa eta loteslea da, 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoak, 79.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena. Ingurumen inpaktuaren txostenak indarraldia galduko du, eta berezko dituen ondorioak sortzeari utziko dio, baldin eta ALHAOn argitaratu eta lau urteko epean proiektua gauzatzen hasi ez bada, 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoak, 79.5 artikuluan xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, aipatutako Legearen 79.6 artikuluaren arabera, sustatzaileak berriro hasi beharko du proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren izapidea, salbu eta ingurumen organoari indarraldia luzatzeko eskatu badio.

Laugarrena. 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, 48. artikuluan ezartzen duenez, ahalik eta eperik laburrenean eta, nolanahi ere, proiektua baimentzeko edo ukatzeko erabakia hartzen duenetik hamar egun balioduneko epean, erabaki horren edukiaren laburpen bat argitaratuko da ALHAOn. Halaber, bere egoitza elektronikoan argitaratuko dira erabakiaren edukia eta horrekin batera datozkeen baldintzak, erabakiaren oinarri diren arrazoi eta gogoeta nagusiak, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsultetan bildutako informazioa, eta informazio hori txertatu dela edo aintzat hartu dela.

Bosgarrena. Ebazpen hau jendaurrean jartzea, ALHAOn eta Arabako Foru Aldundiko Garapen Ekonomikoaren eta Jasangarritasunaren Sailaren egoitza elektronikoan argitaratuz.

Seigarrena. Ebazpen hau Arabako Garapen Agentzia SAri jakinaraztea.

Zazpigarrena. 21/2013 Legearen 47.5 artikuluaren arabera, ingurumen inpaktuaren txostenten honen aurka ez da errekurtsorik jartzerik, hargatik eragotzi gabe proiektua baimentzeko egintzaren aurka administrazio bidean edo bide judizialean aurkez daitezkeen errekurtsoak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 2a

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko diputatua
SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Natura Ingurunearen zuzendaria
MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.12 00:00:06 Z